

bidegileak



José Luis Goti (1923-1998)

Egilea:

EGIBAR URRUTIA'TAR LARTAUN

Haurtzaroa

Rufino Goti eta María Cleofé Iturriagaren lehen semea, José Luis, 1923ko azaroaren 11n jaio zen. Rufinoren aitaren aldeko arbasoak Mendikoa baserritik zetozen, Zeberioko Barbatxano auzoan dagoen baserritik. María Cleofé ere zeberiotarra zen jatorriz, baina aititak kalera alde egin zuen, Ugaora. Haurgintza heltzerakoan, María Cleofé amaren etxera joan zen erditzera, eta horregatik munduratu zen José Luis Ugaon. Hiru urte geroago Pedro María etorri zen, eta beste hiru igarota, María Isabel. Zeberion hazi zen José Luis. Bertan egin zituen lehenengo ikasketak.



José Luis Goti Iturriaga (1923-1998)

Pedro Marik gogoratzen du aitak zintzotasun zentzu sakon batekin betetzen zuela bere al-baitari lana. Ohartu beharra dago, baserriaren ekonomian, abere bat akabatzeak edo umegintza alferrrik galtzeak ondorio garrantzitsuak ekar zitzakeela eta abereek ez daukatela ez lan-ordurik, ezta oporrik ere. María Cleofék Euskal Herriarenganako maitasuna erakutsi zien seme-alabei. Agian horrek eman zion ezkondu zenean behar besteko kemena gutxitua zuen euskara berreskuratzeko. Etxean euska-

raz eta gaztelaniaz ari ziren; auzoan eta lagunartean, aldiz, euskaraz. Euskalduna izateak zailtasun bat edo beste ekarri zion batxilergoa hastean, ikasketak gaztelania hutsean egiten ziren eta. Zailtasunok aitaren euste sendoarekin gainditu zituen. Rufinok hezkuntza ona edukitzea ezinbestekotzat jotzen zuenez gero, ikasteko gogoia eta jakitearen zaletasuna suspertu zuen seme-alabengan.

Bestaldetik, baldintzak ez ziren errazak. XX. mendeko 30eko urteetan, Bizkaiko Institutu bakarra hiriburuan zegoen eta, beste aukerarik gabe, batxilergoa egiteko Bilbora joan behar izaten zen. Orduko garraioidee-

kin ordea, pentsa ezina zen egunero Zeberiotik Bilbora joan-etorrian ibiltzea. Hori dela eta, José Luisek batxilerreko ikasturte gehienak bere esku egin zituen, hau da, bere kontura ikasiz, herriko eskolako irakaslearen gain-begiradapean. Ikasturtea amaitzerakoan, azterketetara aurkezten zen. Horretarako, Rufinok txirringaz eramaten zuen Ugaoraino, eta han hiriburura hurbilduko zuen trenan hartu. José Luisen kezkarik nagusia zera omen zen: aitak katedradunek gomendatzen zituzten liburu guztiak ekartzea, haiekin ordezkatu behar baitzituen irakasleen azalpenak.

1936-39ko gudatea bukatu ondoren, José Luis eta Pedro Mari anaia Bilbora, José Luis Iturriaga eta Juana Elortza osaba-izekoen etxera, joan ziren, batxilergo ikasketekin jarraitzeko. Izeko-osabak, biak irakasleak, irakasletzatik baztertuak izan ziren euskal



Haurtzaroko irudia: José Luis zutik eta bere alboan Pedro Mari anaia



José Luis Goti mutikoa



Rufino Goti ezkerrean eta José Luis ondoan,
Begoñako elizaren aurrealdean

abertzaleak izateagatik. Sei seme-alaba atera behar izan zituzten aurrera, janari eskasiaren garai gorrian. José Luis eta Pedro Mari igande eta opor garaian Zeberiora itzultzen ziren. Han ere, ez zen erosotasun handiegirik. Baserrian zer jan gehixegoa bazen ere, petroliozko edo hidrokarburozko argi baten ondoan ikasi behar izaten zen; erregairik ez zegoenean, berriz, argizariarekin.

Rufinoren ametsa, bera bezala, semeak edo gutxienez bietako bat al baitari izatea zen. Baina José Luisek oso argi zeukan 15 edo 16 urtetatik, sendagile izan nahi zuela. Pedro Mari ere bide berbera hartu zuen. Dena dela, aitak begirunez onartu zuen haien aukera.

Unibertsitate hezkuntzako urteak

Oraindik 17 urte bete gabe, 1940ko urrian, hasi zuen karrera etxetik hurbilen zuen Unibertsitatean, Valladolidekoan hain zuzen. Han, Amorebieta-Etxanoko Boroa auzokoa zen Rosa Artetxe andrearen etxean hartu zuen ostatu. Bertan, hainbat euskal ikasle aurkituko zituen. Batzuk medikuntza ikasten ari ziren (Pedro Barturen, Cosme Gorostiza eta Mauricio Aguirre). Besteak, berriz, bide ezberdinetatik zihoazen. Horien artean zen, adibidez, Adrián Celaya, zuzenbide ikasketak amaitzen. Urteak igarota, biak batera egitasmo garrantzitsuak sortarazi zituzten. Unibertsitate inguru hartan ezagutu zuen María Ángeles Larrea, urte batzuk beranduago bere emazte izan zena. Orduan ez zen ohikoa emakumeak unibertsitate joatea, baina bere jakin-nahiak etxeko harritasuna gainditu zuen. Lemoatik iritsi zen Filosofia eta Letrak ikasteko, aurrena; gero, Historiaren bidea jarraitzeko.

Medikuntzaren barruan, dena jakiteko gogokak menperatzen zuen José Luis: giza soina, gaixotasunak eta, oro har, min mota guztiak. Hori dela eta, barne-medikuntzan espezializatu zen. Agian arrazoi horregatik gogortzen zuen berariaz Bañuelos irakaslea. Espediente akademiko bikainarekin lortu zuen lizentziatura 1947ko ekainean.

Unibertsitateko irakaskuntzak erakartzen zenez, bere burua gogoko zuen espezialita-



Unibertsitateko ikaslea zen garaiari

teko plaza batera aurkeztu zuen 1948an. Eskaera atzera bota zuten: burokraziako husteriak tarteko, agiriren bat falta omen zen aurkeztu beharrekoen artean. Garai berezuan, udal sendagile titularrerako plaza batzuk irten ziren Bizkaian, eta Lekeitiokoa irabazi zuen. Baina berak, barne-sendagile bezala sakondu nahi zuen, eta herrian batzuk bazeudenez gero, Basurtoko Ospitalean sartu zen egoitza egiteko, egin beharreko azterketak gainditu eta gero. Han, Barne-Medikuntzako sailean, arauzko bi urteak bete zituen, Luis Manuel y Piniésen zuzendaritza-

pean. Piniés doktoreak mirespen handia esnatu zuen beregan.

Ospitaleko bizitzako zenbait alde aipatu behar dira. 1936-39ko gudaldian, orduantxe sortu berri zen Eusko Jaurlaritzak (garai hartan Euzkadi'ko Jaurlaritza izenekoak) Euskal Unibertsitatea edo Euzko Irakastola Nagusia antolatu zuen eta, horren barruan, osasun ikasketetako fakultate baten hastapenak ezarri: Osakintza Ikastola. Francoren faxistak gailendu ondoren, Osakintza Ikastolaren sorreran nolabaiteko eginkizuna izan zuten sendagileak kanporatu eta baztertu zituzten. Euskara eta euskal gaien debekuaeren ondorioz, oso sendagile-nagusi gutxi zekien euskaraz Basurton. José Luis berehala ohartu zen egoera honek izugarritzko kaltea egiten ziola sorospeneren kalitateari. Gogoan hartu behar da garai horretan gaixoetatik asko eta asko euskaldun petoak zirela, eta gaztelaniaz hitz egiten zutenean oso gaizki hitz egiten zutela. Hauxe zioen Gotik orduko egoeraz: «Ez egoan dialogorik eta mediku-gaxoen arteko arremana oso pobrea zan. Psikoterapia ezinezkoa zan, persuasiñoa pentsatu bez, eta Lain-en moduan berbakaz lagundu osatuten, ori inpossible orduko terapeutikan» («Euskera eta medikuntza». *Cuadernos Vascos de Historia de la Medicina* II, 1993, 12 or.). Hori dela eta, Gotik gogoan zuen gaixoez sendagile euskaldunekin euskaraz egiteko aukeraren ondorioz erakusten zuten lasaitasuna.

Lan jarduera eta ikerkuntza

Barnetegi aldia amaitu ondoren, itaunlekua edo kontsulta zabaldu zuen Bilbon, 1950eko uztailaren 15ean, Errekalde zumardian akuraturako solairuan. Han jardun zen bere lehenengo 8 urteetan. Ia bi geroago, José Luis eta María Ángeles ezkondu egin ziren, 1952ko lorailaren 3an.

Sendagile eta euskaldun bezala, sorospen ona eta osoa emateko kezka zeukan. Euskara kontsulta hizkuntza bihurtu zen. Ez zen bakarrik Bilbo inguruko jendea joaten, baita nekazal herrietakoa ere: Arratialekoa, Gernikalekoa edo Durangalekoa. Antza denez,

euskaraz egin ahal izateaz gain, konfiantza ematen zien Goti doktorearen jatorriagatik baserriko bizitzaren arazoak ondo ulertzen zituela jakiteak. Gaixo kopurua gora zihoan eta lanerako tokia, berriz, txikiagotzen. Hori dela eta, diru-beharrei María Ángelesen laguntzari esker aurre egin eta gero, 1958an Urkijo zumardirako bidea hartu zuen. Han solairu bateko bi aldeak erosi zituen, alde batean bizilekua eta bestean itaunlekua ipintzeko egokiak. Biak ate-laster baten bitartez lotu egin zituzten.

Osasungintzan sartu eta berehala, ikerkuntza-bidetik abiatu zen, ohiko urratsak ema-



José Luis eta María Ángeles zilarrezko ezteiak ospatu zituztenean, Begoñan

nez: gogoetak egin, zergatiak bilatu eta irtenbideak asmatzea. Bide honek, nahi eta nahi ez, ohar-ikasitakoa, hau da, eguneroko langintzan ikusitakoa, lankideei azaldu eta erakustera eraman zuen eta, ondorioz, medikuntza-elkarte desberdinetarako bidea hartzeranimatu. Horrela iritsi zen Bilbo'ko Sendalarintz Jakindira, Barne-Medikuntzaren Espainiako Elkartera eta Aparatu digestiboaren zein Aparatu digestiboko patologiaren Espainiako elkarteetara. Biltzarretara ere joaten hasi zen, besteengandik ikasteko eta txostenak aurkezteko, eta, era berean, artikulua idazten eta argitaratzen.

Bilbo'ko Sendalarintz Jakindiak, 1895ean sortuak, urte asko zerman. Bere eginkizunekin, Bizkaian osasunarekin lotutako unibertsitate zentroen eza arintzen zuen nolabait. Goti doktoreak parte hartu zuen 50eko hamarkadan zenbait gairi buruz hitz eginez. Zenbait arazo endokrino jorratu zuen hitzaldiotan, beste batzuen artean, aparatu digestiboarekin elkarganatura zeuden eta. Honek erakusten du aparatu digestiboari dagozkion arazo eta gaixotasunek lehentasun handia izan zutela bere lanean.

50eko urteen hondarretan Jakindia eta Bordeleko Unibertsitatea harremanetan hasi ziren.



Biltzarrak ikertzaileen bilgunea dira:
Goti doktorea Severo Ochoa zientzialariarekin



Goti eta Mogeno doktoreak hitz egiten
Biltzarraren ekitaldien artean



Aparatu digestiboari buruzko gaixotasunei buruzko Biltzar bateko lehendakaritza-mahaian

Horren haritik, aparatu digestiboko espezialisten arteko aldizkako bilerak antolatu zituzten «Urdail-heste ikerkuntzako espainiar-frantziar jardunaldiak» izenburupean. Horietan Goti doktoreak ere parte hartu zuen aparatu digestiboaren gaixotasunetan interesatuta baitzebilen. Dirudenez, sarri samar ikusi behar izaten zituen horrelakoak. Ohar-ikositakoarekin, 1959an, Obregón doktorearekin batera lehenengo artikulua argitaratu zuen, pankreako arazo zehatz bati buruzkoa: «Nesidioblastome du pancreas» izenburuarekin, Frantziako aldizkari berezitu batean. Ildo honetan, aipagarria da pixka bat geroagoko txosten bat ere, 1963ko Aparatu digestiboaren Gaixotasunei buruzko Espainiako Biltzarrean aurkeztutakoa: «Nuestra experiencia en tumores retroperitoneales».

Zenbait gaixotasun edukitzeko aiherrean —aldez aurreko jarreran— jatorrizko egile edo egile genetikoek daukaten zerikusiak odol-ikerkuntza edo hematologiara bultzatu zuen. Arlo honen zuztarrak XX. mendeko lehenengo urteetan jarri ziren, odol talde ezberdinak daudela aurkitu zenean, eta 1940ko hamarkadan oinarrizko aurrerapenak eman ziren. Ikertzaileak susmatzen hasi ziren gaixotasunen batzuek osagarri genetikoak zeuzkatela. Ohartzekoa da odola beste ehunak baino eskuragarriagoa dela, eta arrazoi honegatik zihoazen hain estuki lotuta. Bere tesiarren gaia hauxe izan zen: urdail-hestemeheko zauri, zorna edo ultzeran ondare genetikoak daukan zerikusia, odol taldeen bitartez aztertuta. Ramón Velasco Alonso doktorearen zuzendaritzapean egin zuen. Izenburuak as-

moa eta helburua erakusten ditu: «Grupos sanguíneos y herencia genética en la úlcera gastroduodenal. Los mucopolisacáridos ABH y LEWIS en la génesis de la úlcera gastroduodenal». Defentsa ekitaldia 1964an izan zen, lizentziatu zen Valladolideko Unibertsitatean, eta azken ona emanez irten zen baliotapen edo kalifikazio gorenarekin. Txalo handiagoa aitortu behar zaio eguneroko lana egin ondoren garatzen joan zela jakinik. Gainera, ez zuen zalantzarik edukitzen gaixo bat etxera ikustera joateko, nahiz arratsaldeko zortziak izan, nahiz igandea, bai Gernikan, bai Balmasedan, goizeko lehenengoari izandako arreta berberarekin.

Hortik aurrerantz, aparatu digestiboari buruzko zereginetan lan egiten jarraitu zuen, odol-ikerkuntza edo hematologia eta minbizia ere ukituz. Lehen sailekoak dira 1964an Madrilen Alergologiari buruzko V. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako txostena, urdail zauri eta arnasbide arazoaren arteko loturari buruzkoa: «Úlcera gástrica e insuficiencia respiratoria»; edo 1971n pankreako arazoez egindako hitzaldia: «Problemas médicos del páncreas». Bigarren arloaren adibideak, «Grupos sanguíneos y úlcera péptica» artikulua, Ramón Velascorekin batera argitaratua 1965ean *Revista Clínica Española*-n, eta aurreko urtean Bruselan Ur-



Goti doktorea Biltzar baten hitz egiten

Chevalier du l'Ordre National du Mérite
bezala zintzilikatze domina urdin-urdina.
Ezkerrekoak, Deustuko Unibertsitateko
Patronatuko kidea izan zela adierazten du



dail-heste ikerkuntza edo Gastroenterologiari buruzko VII. Nazioarteko Biltzarrera aurkeztutako txostenaren ondorioa; edo «Antígenos ABh y Lea en patología digestiva» eta «La enfermedad Rh hemolítica en Vizcaya», 1967-68koak. Hirugarren arloko erakusleen artean honako hauek ditugu: «Incidencia y evolución del cáncer de esófago», 1965ekoa, edo 1966an Urdail-heste-ikerkuntzari buruzko III. Nazioarteko Biltzarrera Tokion aurkeztutako txosten biak: «Study of gastric cancer in Vizcaya (Spain)» eta «Epidemiology factors in the early diagnosis of gastric cancer». 70eko hamarkadan luzatuta, adibidez 1976ko hitzaldi batekin: «Radiología y endoscopia en patología digestiva». Odol-ikerkuntzan egindako ahaleginak seroantropologiaren esparrura eram zuen Goti doktorea. Esparru horretan hainbat ekarpen egin zituen. Horren lekukoa da 1965ean Liverpoolen izandako *Sympo-*

sium-ean «Blood groups in Basques» izenarekin egindako hitzaldia.

Beste ekintzetan ere zabaldu zituen bere trebetasunak. 1967an, lehen aipatutako Urdail-heste-ikerkuntza edo Gastroenterologiari buruzko IV. Jardunaldiak Bilbon izan ziren, eta berak bere gain hartu zituen ekitaldien antolaketa eta aktak argitaratzea. Bere lan ederragatik, Frantziako Gobernuak *Chevalier du l'Ordre National du Mérite*-ko urrezko domina eman zion. Apal batean utzi egin zuen, handik ez ateratzeko, José Luisek ez baitzuen gustukoa harro izatea, bere burua erakustea.

Alkoholaren eraginari buruzko lanak nabarmen agertzen dira 1968an, zenbait artikulu eta txostenekin. Adibidez, «Alcohol et cirrosis en Biscaya», Pragan ospatutako Urdail-heste-ikerkuntzari buruzko Nazioarteko VIII. Biltzarrean.



Tokioko Biltzarreko jardunaldi batean, entzule bezala

Nazioarteko biltzarretan aurkezten zituen txostenek edo egindako hitzaldiek eta medikuntza aldizkari berezietan argitaratutako artikuluek kopuru zabala osotzen dute. Bilerantzientifikoetara joaten zen gaixotasunekin borrokatzeko zeuden aurrerapen berrienak ezagutzeaz axola hartuta. Asmo berberak eraman zuen bere itaunleku edo kontsulta klinika txiki bat bezala hornitzera: analisi laborategiarekin hasi zen; gero, X izpietarako tresna bat jarri zuen, orduan aurreratuenetakoa. Ezartzeak lan eta eginketa bereziak behar izan zituen: lehendabizi, solairua indartu burdina eta hormigoiarekin, etxaurreko horma eta oholtza batzuk bota sartzeko, eta

berregin. María Ángeles emazteak gogorarazten du José Luisek 1966ko Tokioko Biltzarrean asko ikasi zuela erradiologia erabiltzen aparatua digestiboko minbizia igartzeko edo diagnostiko goiztiarra egiteko.

Ramona eta Clara Malaxetxebarria ahizpak 70eko hamarkadaren hasieran hasi ziren lanean Goti doktoarearekin. Erizain biak laguntzaile eraginkorrenak bihurtu ziren. Euskaldunak izateak euskaraz egitea bideratzen zuen, eta beraz sorospen eta zaintza egokia ematea bermatu ere, euskaraz erosoago zeudenentzat.

José Luisek bere gaixoak sorostea eta eginbizun akademiko eta zientifikoak batera era-

maten zituen. Hauek ez ziren bere kezka nagusiaren ondorioa baizik: zerbitzu osoa ematea, etxeko sendagilearen ohitura zaharrearantz ulertuta gainera. Bere ingurukoek hitzak sendatu egiten duela entzuteko aukera izan zuten sarritan. Goti doktoreak ez zuen bere lana sendagaiak ematera bakarrik mugatzen. Gaixoari entzuten eta bere gaitza azaltzen

saiatzen zen, beharrezkoa zuen denbora gutxia hartuta. Behin baino gehiagotan, itaunleku edo kontsulta eta etxebizitza banatzen zituen ate-lasterra —zabalik gehienetan, itxita baino— gurutzatzen zuen, eta oharkabean bezala ibiltzen zen sukalde edo egongela artean. Gaixoari bere egoera nola agertu pentsatzen jarduten zuen, batez ere larria baldin bazen, lasaitasunez eta era itxaropentsuan nola azaldu. Osa-txosten bakoitzean laga zituen aztarnak, hasierako ohitura betiko jarraituz, eskuz eta lumaz idatzita.



Ekografia egiten



Goti doktorea eta erizainak, Ramona eta Clara Malaxetxebarria, gaixo batekin bulegoan

Kulturaren aldeko ardura

José Luis Gotiren eginkizunak, osasungintzan eta medikuntza gogoeta zabalagoan kokatzen dira: zuztar humanistikoetan eta gizabidezkoetan. Eta hor ikusten da bere kezkek giza kultur osoa hartzen dutela. Gainera, María Ángeles bere lanetan iritzi eta ardura berekoa zen. Hau dela eta, 1970ean erakunde zahar batean sartu zen, XVIII. mendean antzeko asmoak bideratu zituen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean. Baina garaiko girora jo behar da egindakoa argiago ikusteko.

Francoren diktaduraren hasieratik zeuden baldintza politikoek larriki atsekabetzen zu-

ten euskal kultur giroa. 60ko hamarkadaren azken aldera ere, oraindik, ezinezkoa zen eginkizun zientifiko normalizatua garatzea. Zenbaitentzat ez zen oharkabeko egoera. Adrián Celayak dio egun batez bera eta emaztea, José Luis eta María Ángeles bildu zirela, eta «Euskal Erria ajola zitzaigula jabetu ginen eta, batez ere, bere kultur-goratzeari».

Bilbo'ko Sendalarintz Jakindiaren sorreraren 75. urteurrena hurbiltzen ari zenez, José Luisek zerbait zabala antolatzea pentsatu zuen, ikuspegi antropologikotik alde ezberdinak hartuko zituena. Hain egitasmo zabalaren zergatiak osasunean zeukaten oinarria. Hitzaldi eta txostenak jasotzen dituen liburua-



Kezka humanistikoak arlo ezberdinetako lagunak batzen ditu. Ezkerretik hasita: José Luis Goti, José Ángel Sánchez Asiáin —Banco de Bilbaoko zuzendaria eta gero Fundación BBVko lehendakaria—, honen emaztea, eta María Ángeles Larrea



José Luis Goti Adrián Celayarekin

ren aurkezpenean (*Primera Semana Internacional de Antropología Vasca*, 1971) hauxe azpimarratu zuen: aldaketa nagusia ematen ari zela gaitzen ikerkuntzan, estresaren gaitza zabaldu eta gora joan ondoren. Estresa gizarte joeren emaitza denez gero, beharrezkoa zen gizartea bera ikertzea eta gizakiak gaitz horri nola egin aurka asmatzea, ahalezko erantzunetako bi osagarriak hartuta: genetikakoa eta ingurunekoa edo kulturakoa.

Adrián Celayari esan zion isilean, baina hau ezkor agertu zen gainditu beharko ziren oztopo izugarriak ikustean. Lehendabizi, arlo ezberdinetako zientzialarien interesa sortarazi behar zen, baina ez zeukaten beraiekin inolako harremanik. Lan honetan José Luisen eta María Ángelesen trebetasuna jarri zen agerian: egitasmoa abian jar zitekeen itxaropena zabaltzeko eta horren inguruan arituko ziren lankideak biltzeko gaitasuna. Lotsorrez,

gizon ezagunei hots egin zieten: Joxe Miel Barandiarani, Julio Caro Barojari, Francisco Escuderori edo Manuel Lekuonari, Koldo Mitxelenari, José María Basaberi edo Vicente Palacio Atard-i, besteak beste. Bata bestearen atzetik, pozik onartu zuten parte hartzea. Bigarren oztopo handia eragozpen politikoak gainditzea zen. Mota honetako edozein ekin-tza antolatzeko, aurretik agintarien baimena behar zen, bai aztertuko ziren gaientzat, baita arduratuko ziren pertsonentzat ere. Erlijioaren astunarekin, apaizak tartean izatea aparteko abagunea zen. Bazeukaten eurekin bat zetorren Andrés de Mañaricúaren babes ziurra eta sendoa. Laster, María Ángeles (ordura arte Historia Orokorraren irakaskuntzan Deustuko Unibertsitatean aritutakoa) eta Gregorio Monreal berorrekin hasi ziren Bizkaiaren Historia lantzen —Euskal Herriari buruz agerian hitz egitea debekatua zegoen—.



Goti-Larreatarren etxean afaltzen; ezkerretik eskubidera: Matilde Martínez de Ilárduya, Mitxelena-ren emaztea; Luis Sánchez Granjel eta berea; Koldo Mitxelena, María Ángeles eta José Luis



Bazkariak badira ere biltzeko giro egokia. Ezkerrekoa Rafael M.^a Mieza da. José Luis Gotiren eskuinean Ignacio Etxeberria Monteberría, eta bestaldean honen emaztea, Edurne Otxoa de Txintxetru. Gero, José María Setién Donostiako gotzaina, eta María Ángeles Larrea

Baina Gobernadore Zibilak, Coll de San Simónek, edozein aldetatik irten ahal zuen. Eta halaxe gertatu. Arduradunek harekin hizketatzera joan beharra zeukaten, egin nahiko zizkien galderei erantzutera; batzuetan maltzurri —harrapatzeko eginei—, besteetan sakatsei. Ez zitzaion gauza hoberik bururatu, José Luisi bere abizenagatik galdetzea baino: «Goti. Eta hori, nondik dator?». Erantzun «zuzena» zorigaitzekoa izan zitekeen: toki-izena zela azaltzea, «euskalzalekeria» nahastaille eta iraultzailatzat har zezakeen. José Luisek honako ateraldi hau izan zuen: «Goti? Ba... gotuengandik!». Egitasmoa Euskal An-

tropologiaren Astea bilakatu zen, 1970ean. Bi gauzatan nabaritzen da bere arrakasta: hitzaldi eta txosten anitzen argitalpenean eta izan zuen jarraipenean, ondoko bi urteetan bigarrena eta hirugarrena egin baitziren. Zientzia arloan, José Luisek lehenengo urtean «Los grupos sanguíneos en nuestra población» izenburuko hitzaldia aurkeztu zuen, eta «Aportación a la antropología de la población vascofona», bigarreanean. Antolaketa gorabeherekin, Goti-Larreatarren etxea kezka eta gogoeten bilgune eta lan egitasmoen sorgune bihurtu zen. Baita adiskidetasun luzeen hasieraren inguru ere.



José Luis eta María Ángeles atsedendian

1973-75 bitartean Bilbo'ko Sendalarintz Ja-kindia-ren lehendakaritza bete zuen. Aldi berean, erakundeak ateratzen zuen *Gaceta Médica de Bilbao* aldizkariko zuzendaria izan zen. Erakundearen lehendakaritzatik eginkizunen gehikuntza eta anizkuntza bultzatu zituen, eta beste helburu bitxi bat ere jarri zion bere buruari: «euskerari ateak zabaltzea» («Euskera eta medikuntza». *Cuadernos Vascos de Historia de la Medicina* II, 1993, 19 or.). *Gaceta Médica* aldizkaria, berriz, eraldatu egin zen, medikuntza argitalpenen nazioarteko aurkibideetara egokitzeko. Era berean, laburpenak edo *abstract*-ak sartzen hasi ziren, ez gaztelaniaz bakarrik, baita ingelesez

eta euskaraz ere. Gauza berri-berria zen garai hartarako. Gainera, gaien eduki sorta zabaldu zuen.

Sendagilearen eta gaixoaren arteko giza harremanari ematen zion oinarrizko garrantziarekin, José Luisek arazo handitzat hartzen zuen mediku gehienek euskaraz ez jakitea. Nabaritzen zuen tresnen falta ere bazezuela hizkuntza gehiago eta hobeto erabiltzeko. Aldi berean, berak eta beste sendagile euskaldun batzuk ohartu ziren euskarak ez zuela soros-tresna hutsa izan behar, baizik eta eman behar zitzaiola tokia izate oso eta normalizatutako medikuntzan: «Orduan esa-



Euskal Medikuntzaren Historiaren hastapenak. Zutik, Manu Vitoria eta María Ángeles Larrea irakasleak. Ezkerraldean, irakasle batzuk. Eskuinean, Luis Sánchez Granjel, Joxemiel Barandiaran eta José Luis Goti

ten gendun (1974) saltu bat edo aurrerapide bat egin bear gendula, au da, euskera, pentsatzeko, idazteko, eta geure aportazio zientifikorako.» («Euskera eta medikuntza». *Cuadernos Vascos de Historia de la Medicina II*, 1993, 19 or.). Asmo honekin, Jakindian Medikuntz-Euskera Atala sortu zen, eta euskara-gaztelania izendegia atontzea bultzatu zuen. Laster etorri zen lehiaketa literario elebiduna, eta mahai-ingurua antolatzea, osasungintzan euskarari buruz: «El euskera en la medicina asistencial y en las ciencias médicas». Javier Muguruza, Francisco de Ocamica, Santiago Brouard, Javier Saez de Viteri, Carlos Goena eta Candina doktoreak hartu zuten



Goti irakaslea Euskal Medikuntzaren Historia Mintegiko 1988 urteko egun batean, irakasten

parte, José Luis Goti zuzentzailea zela (*Gaceta Médica* 1975, 72 zat., 12 zb., 1235-1248 or.). Lanaren ondorioz, hiztegitxo bat egin zuten Iturriaga, Uriarte, Alberdi eta Ondarra doktoreek, *Léxico médico práctico español-euskera*, izenarekin 1979an argitaratutakoa. Joe- ra honetan sakonduz, lau urte geroago aipatutako Ataleko kideek hiztegi zabalagoa kaleratu zuten.

Garai honetan Medikuntza Zientzien museoren bat egitea bururatu zitzaion. Botika tresnak biltzen hasi zen, eta sendagileei tresneria zaharra edo erabiltzen ez zena laga zezaten eskatzen, etengabeko erakusketak antolatzeko Jakindiaren egoitzako alde batean. Asmoak ez zuten lortu, ordea, jarraipenik.

1918an sortutako Eusko Ikaskuntzak garai ilun eta latzak bizi izan zituen 1936ko guda- diaren ondorioz. Egindako ahalegin apur- rarak Joxe Miel Barandiaranek egin zituen Iparraldean, erakundearen uste-asmoei ne- kez utsiz. Berpizkunde-ahaleginak 1976-78 urte bitartean loratzen hasi ziren. Ordu- koa da, besteak beste, Euskal Antropologiako I. Astea. Aste hau dela eta, Barandiaran eza- gutu zuen eta, ondorioz, Gotik Eusko Ikas- kuntzarako bidea hartu zuen. Apustua era- batekoa izan zen. Euskal gaiei erantzun- gien unibertsitate publiko propiorik ezean, Eusko Ikaskuntza zen, ezbairik gabe, zien- tzia eta kultura munduko euskal jendearen bilgune.

Unibertsitatea eta euskal medikuntzaren historia

1968an Bilboko Unibertsitate Autonomoa eratu zen. Horretarako, hirian zegoen Ekonomi Zientzien Fakultatea Valladolideko Unibertsitateetik banandu zen. Lege-Dekretuak Medikuntza eta Zientzien Fakultatea ere aurrerikusten zuen. Geroago eraiki eta hasi zen, 1973an. Une honetatik aurrerantz, irakasleak hartu behar ziren. Goti doktorearen jarduerak akademikoarekiko aspaldiko zaletasunak orain nolabaiteko bidea aurkitu ahal izango zuen. Baina oso zaila egingo zitzaion osasungintzan jardutea, gaixo asko joaten baitzitzaien itaunleku edo kontsultara, eta aldi berean irakasle izatea. Hala ere, lankide eta kezka berdinetako Manu Vitoria lagunaren erreguei jarraituz, Medikuntzaren Historiari adarrerako bidea hartu zuen. Irakasletzan laguntzaile bezala sartu zen, 1975ean. Diktadu-

ra frankista amaitu ondoren, baldintza politikoak egokiagoak izaten hasi ziren. Ordukoak dira doktorego ikastaroak eta Euskal Medikuntzaren Mintegiaren sorrera-ahaleginak.

Bi zeregin horiei ekin zien buru-belarri Gotik.

1979-80 ikasturtean, José Luis Gotik euskal medikuntzari buruzko ikastaroa antolatu eta eman zuen: «Historia de la Medicina vasca», 14 gaiez atondutakoa. Ardatz honen inguruan, ikerlari ospetsuak deitu zituen maisu-ikasgaiak prestatu eta eman zitzaizten. Bere arduretako bat izan zen egitasmoan euskarari sarrera ematea. Berrikusten baldin bada, hizkuntza eta kulturaren garapenerako oinarri egokiak ezartzeko zeukan garrantzia sumatzen da bertan: José María Satrustegik herrirri-osasungintza aztertze bideei buruz hitz egin zuen: «Material y métodos de información en Medicina popular»; Julio Caro Baro-



Euskal Medikuntzaren Historia irakasteko idazkiak (1979-80 ikasturtean)



Mintegiaren ekitaldi batean 1984an: José Luis Goti, erdian Luis Villasante, eta Carlos Undabeitia

ja, berriz, Pío Barojaz aritu zen, Zestoan herriko sendagile gisa bizi izandako gorabeherak azalduz; Luis Villasantek hizkuntzaz: «El léxico en la Medicina vasca»; eta Luis Sánchez Granjelek Medikuntzaren Historiaren ikerketarako sarreratxoa egin zuen: «Introducción al estudio histórico-médico». Piztu zuen interesak sakontasun handiagoa eta zabalagoa ematera bultzatu zuen: hurrengo urtean, 86 gaietara heldu zen aurkibidea. Medikuntzaren Historia kultur ikuspegi zabal batetik begiratzen jarraitzen zuten, honako monografia hauek erakusten dutenez: María Ángeles Larrearen «Síntesis de la historia del País Vasco»; Piarres Xarritonen, «Medi-

kuak Euskal Literaturan»; edo José María Sarrutegik gertutakoak: «Inguma: Pesadilla», «Lozorroa: Sueño profundo» eta «Mitos y aspectos sexuales en el País Vasco».

Medikuntza ikasketen ezagatik, arlo hau ez zegoen gure inguruan landuta. Garapen zientifikoaren oinarri sendoak ezartzeko, Luis Sánchez Granjelen lankidetzara jo zuen Goti doktoreak. Gizon hau, Salamancako Unibertsitateko Medikuntzaren Historiaren katedraduna, hango Espainiar Medikuntzaren Historiako Ikastegiaz arduratzen zen. Gai horretan bide luzea eginda zuenez gero, Granjelekin Euskal Medikuntzaren Historia-



Medikuntzaren Historiako VI. Ikastaroko irakasleak, 1985eko udaberrian, Mintegiaren ikasgelan


ri buruzko Mintegia antolatu zuen. Orduan, dena edo ia dena egiteko zegoen. Euskal Herriko Unibertsitate sortu berriaren erakundetzea geroago egin zen. Baina, astirik galdu gabe, bazihoan edukiak bermarazten: liburutegi bereiztua bildu gune egoki batean, Unibertsitateko agintariengandik lortuta, eta irakaskintzetarako gela Leioako *campus* berrian. 1981eko lotazilean edo abenduan bazeuden 1.471 liburu, pertsona ezberdinek emanda.

Harreman hauen ondorioz, Salamancako Medikuntzaren Erret Akademiako kide urgazle izendatu zuten. Sarrerako irakasgaia 1981eko azaroaren 27an eman zuen, Done-

-jakuereen bideko nafar ospitaleei buruz hain zuzen ere: «Hospitales navarros de la ruta jacobea».

Gerora, ordura arte jorraturiko gaiak alde batera utzi zituen eta iraganeko euskal medikuntzari eta gaixo-sorospenari ekin zien.

Ez zuen etorkizunean ikerketak egin ahal izateko oinarritzko lanak gertutzea baztertzen. Hastapen bezala, 1979an Mintegi hasi berriaren barruan Granjelek *Introducción al estudio histórico de la medicina vasca* argitaratu zuen. Lau urte geroago, 1983an, Goti irakasleak eta Mintegiko lehenengo ikasleek ha-



José Luisen historiari buruzko liburu bat, nafar ospitaleei buruz



Euskal Medikuntzaren Historia Mintegian egindako ikerketak zabaltzeko argitaratutako aldizkariak, Goti irakasleak zuzenduta

sitako bilketa lanei esker, Granjelen *Historia de la Medicina Vasca* kaleratu zen. Era berean, lizentziaturako tesitxoak eta doktore tesiak zurrustaka hasi ziren. Aipatzekoa da Mintegiaren eginkizun zientifikoari adierazpen bi-dea emateko eta zabaltzeko *Cuadernos de Historia de la Medicina Vasca* aldizkaria anto-

latzen egindako lana. Bera zuzendari zela (1981-1986), esandako aldizkariak izenez aldatu zuen eta berri hartu: *Cuadernos Vascos de Historia de la Medicina*.

José Luisek museoaren egitasmoa hartu zuen berriro 1981ean: Euskal Medikuntzaren

José Luis Gotik museoa egiten sustatu eta lagundu zutenen izena jartzen zion gela bakoitzari, nolabait eskertzeko. Hil ondoren, Patronatuak Museoari bere izena ematea erabaki zuen: «José Luis Goti» Medikuntzaren eta Zientzen Historiaren Euskal Museoa





Museoaren gelan, Leioan, José Luis Goti eta Julio Caro Baroja. Pixka bat atzerago, María Ángeles Larrea



Mintegiko ekitaldi baten solasaldia. Ezkerrean José Luis Goti, gero Gregorio Monreal, bere ezkerrean Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja

Historiaren Museoa. 1982ko epailaren edo martxoaren 25ean —lorailan edo maiatzean dio museoaren lehen katalogoak— zabaldu zen ofizialki. Zaila da lehenengo gain-begiradan sorrera egun bat zehaztea, indartze eta zabaltze une garrantzi bakoitza «sorpen une»-tzat hartu delako, bai eginkizunen oroitazkietan, bai kazetari albisteetan. Zerbait erakusten badute, zera da: bere egile eta bultzatzailearen etengabeko lana. Horrela, orduko errektore zen Gregorio Monrealen sustapenarekin, toki zabal bat eduki ahal izan zuten Leioako *campuseko* Liburutegiaren erai-kinean. Han jaso zen Industri Ingeniariei Es-

kolatik ekarritako tresneria bilduma bat. Horrekin antolatu zen Zientzien Historiaren Euskal Museoa hasieran. Ondare honen berantolaketatik baina, batez ere, José Luisek jartzen zuen gogoari esker, Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa sortu zen 1984an. Tresna eta gailu zahartuek eta baztertuek garai bateko jakite mailaren eta gaixotasunen aurkako borrokan ahalbi-deen aitormena ematen dute. Azterketa eta ikerketen bitartez, ikerlariak eta gai hauetan espezializatuta daudenek hobeto ezagutu dezakete euskal lurraldeetan izan den garapen zientifikoa eta osasungintza.



Mintegiko ekitaldia: eskubiko mahaian ikusten dira Ignacio Barriola eta Gregorio Monreal; erdikoan José Luis Goti, Julio Caro Baroja eta Luis Sánchez Granjel

Museoa jantzi eta hornitu aldera, Jose Luisek hamaikatxo joan-etorri egin zuen, besteak beste, medikuntzan jardundakoengana zein osasun etxeetara. Bere ahaleginari esker, hainbat eta hainbat tresna eta gailu berreskuratu zituen eta museora eraman. Bide hori hartu izan ez balu, betiko galduko ziratekeen.

Bere uste-asmoetan sakondu nahian, 1984an, irakasle titular plaza lortu zuen urte berean, Medikuntza Historiaren Euskal Elkartearen eratu zuen Luis Sánchez Granjelekin batera. Zeregin horretan Ignacio Barriola sendagile donostiarraren erabateko lankidetzat izan zuten. Jaio eta urte batera egin zuen bere lehen biltzarra elkarte sortu berriak. Bertan aritu zen José Luis, une horretan elkarteko

lehendakariorde zela, antolamendu eta zuzendaritza lanetan.

1988an irakaskuntza munduan erretiroa hartu arren, Museoaren eta Mintegiaren buru izaten jarraitu zuen. Hala ere, egitasmoen bizi-iraupena unean uneko koiunturetatik babestu eta ziurtatzeko asmoz, fundazio baten sorrera sustatu zuen. Esandako fundazio hori 1995ean eratu zen.

Baina arlo akademikoan zabalduko lan honen ez zuen bere kontsultatik edo itaunlektik eta bere gaixoengandik urrunduz. Bere bizitzako azken egunera arte jardun zuen lanean, bat-batean hil baitzen 1998ko urtarriaren 15ean. Ia 50 urtetan, 47.000 pertsona baino gehiago jarri ziren bere zaintzapean.



Gaixo batek aurkitzen zuen Goti doktorearen lehen irudia. Unibertsitateko ikasleei azpimarratzen ziren hobe zutela ikasketak lagatzea gogo onekoak ez baziren

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *María Angeles Larrea Sagaminagari*
- *Pedro M.^a Goti Iturriagari*
- *Ramona Malaxetxebarria Urtubiri*
- *Clara Malaxetxebarria Urtubiri*
- *«José Luis Goti» Medikuntzaren eta Zientzien Historiaren Euskal Museoari*
- *Rafael M.^a Mieza y Mieg-i*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde (g.b.)

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2186-0 (Lan osoarena)
84-457-2190-9

L.G.: BI-2960-04